



Berriozabaletako iturria (Elorrio)

Ur horniketa izan da antzinetatik gizakiak izan duen kezkarik handienetako bat. Hala ere, XVII. gizalditik hona handitzen da horniketaren beharra sentibilitate higienista berria dela eta. Une honetan Elorrio hiribilduan obra ugari egiten da urak ekartzeko eta iturriak eraikitzeko.

XIX. gizaldiak garbitzearen ideologiaren areagotzea ezagutzen du, horren ondorioz Bizkaia osoan latsarri eta iturri berriak altxatzen direlarik. Baina, kasu hau ez da udaletxeak edo bizilagunen "auzolanean" bilduta egindako obrarik. Iturria, sorterriko auzoari egiten dion opari bikainagatik gogoratua izan nahi duen -eta lortu ere lortu egiten duen- herritar baten mandatua da.

Manuel Plazido de Berriozabalbeitia (Elorrio 1775 - Madril 1850) Berriozabalbeitia baserrian jaio zen, iturriko bidearen eskuinaldean. Bere ikasketen ondoren lanpostu bat lortu zuen Peruko administrazioan, non herrialdearen independentziaren negoziazioarekin burutuko zuen gorabide arrakastatsua izan zuen. Penintsulara itzuli ondoren, 1828an, bere ondarea administratzen eta familiari laguntzen jardun zuen.

1832 eta 1833 artean altxatu zuen iturrirako bidearen ezker aldean dagoen jauregia. Obra hau proiektu askoz handinahiago baten abioa izango da. Horrela, jauregia egin ondoren, erabakitzen da iturria eta latsarria beren loturako bidearekin eraikitzea, eta oinarrietatik berreraiki zen Santa Catalina basiliza zaharraren lekuz aldatzea. Manuel Plazidok lanak ordaindu ezezik, ondoko ekarpen eskuzabalak ere egingo ditu utzikerian geldi ez daitezen. Ageria da indianoaren interesa eta izpiritu jaso eta ilustratua, bere erkideen bizi baldintzak hobetu, jaiotzen ikusi zuen auzoaren itxurari duintasuna eman eta bere figuraren oroimen ona betierekoa egiteko gogoz.

Aukeratutako arkitektoa promotorearen familiako elorriotarra da: Miguel de Elkorro Bereceibar, jatorriz gipuzkoarra, San Fernandoko Erret Akademian ikasitakoa. Hau da duen obrarik interesgarriena, beste arkitekto ezagunagoen obren parekoa. Proiektu honen argitan, arkitekto neoklasiko zurrun gisa agertzen zaigu, simetria eta figura geometriko hutsetan oinarritutako arau akademikoaren jarraitzaile zintzoa.

Iturrirako aukeratu lekua auzoaren behealdea da, ibar aldean, eta bere lekutzean argi antzematen da paisaia aberasteko asmoa. Bidearen hasieratik eskaintzen zaigun bidea zirrargarria da. Ibilbideak behera egiten du alboetan bost metrotik bost metrora dauden zutaberen artean. Iturria bidearen erdi aldera dago eta apur bat beheago ur-andela. Galtzada amaitzen denean terraza artifizial erdi-borobil bat zabaltzen da, arrazoez antzoki grekoarekin lotu dena, Anboto, Ailuitz, Aitzxiki, Untzilaitz eta Mugarra mendietara begira.

Iturria da monumentuaren erdigunea. Aurrealdea planteatzen du jauregian eta basilizan ere erabiltzen duen alboratutako bolumenen eredia berdinuz. Bolumenak erabatekoak dira, singleak eta harmonikoak, daukaten apaindura bakarra harlauzetara eta lehoi buru irudiko tutu metalikora laburbiltzen da. Honek aurreratzen den aska angeluzuzen batera isurtzen du ura. Alboetako gorputz biek bao termal bana daukate, hiru harmailaz bertara iristen dela. Lehen pantaila honi bermatuta, eta hari bizkarra emanez, zirkulu-erdi formako latsarri bat zabaltzen da abaniko gisan, bilgune osoari zentzu osoa ematen dion aitzakia. Figura honen


inguruan hemiziklo bat biratzen da, zazpi eserleku bermatzen diren horma betez babestuta. Espazio eszenikoa sortzen da horrela, auzoaren benetako bilgune gisa sagaratu.

Beraz, arkitektoaren garairako marko dotorea, jasoa eta modernoa zena bilatu ezezik, erosotasun handiago eta erabiltzaileentzat espazioaren erabilpen zentzuzkoari bidea ematen zioten xehetasunak ere eskaini zituen. Iturria gizakien erabilera soilik asmatu zen, animaliak aurrealdetik sartzeko galaraziz, bazterrak lehen hiru harmailak babesten dituen hormatxo loturiko lau zutaberen bidez.

Latsarriaren inguruan belaunikatzeko alternatiboki jarrita dauden harlanduak, edota tutuaren aurrean ura hartzeko, edo itxidurazko horman sartutako eserlekuen atzealdean eginiko osagarriak, edertasuna arrazoiari, proportzioari eta armonian ikusten duen neoklasizismoarekin lotzera eramaten gaituzte.

Iturriak daukan balio argiak eta sortzen duen interesak eraman zuten Bizkaiko Foru Aldundia hura zaharberritzera 1992 eta 1993 artean.

Testua: Felicitas Lorenzo.



Berriozabaletako iturria

Elorrio. (*Berriozabaleta auzoa*).

Sarbidea:

Berriozabaletako iturria Elorrioko izen bereko auzoan dago, hiribilduaren ibarra ipar-mendebaldetik menpean hartzen duen 310 metro inguruko muino baten gainean kokatua. Autoz irits daiteke bertaraino, Elorrio-Berriz errepidean Leniz parean ezker aldeko bidea hartuta. Hemendik oinez ere jaitsi daiteke Elorrioraino, promotoreak egin zuen iturriaren garaiko galtzadatik behera.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Elorrio*)

- Berriozabalbeitia jauregia. (*Berriozabaleta auzoa*).
- Santa Catalina eta San Plazido basiliza. (*Berriozabaleta auzoa*).
- Urrutia baserria. (*Berriozabaleta auzoa*).